

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Agintaldiko lehenengo
osoko bilkura /08

ELKARRIZKETA
Xabier Gomez,
parrokoa /09

LEINTZ GATZAGA
San Martin
eguna /10

'EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA' ASTEA

Orain dela lau urte
sortu zuten
EPEH Aretxabaletako
plataforma.
Tarte horretan, presoek
egoeraren berri eman
eta herritarrak
sentsibilizatu gura
izan dituzte.
Presoen egoerak,
baina, ez du
hobera egin.



ELKARRIZKETA: IÑAKI SAGASTA/5 • KIROLAK: ANTXON ANDUAGA/6

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 12
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 13
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murrukixo ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Zapatuan 20:00etan. Jesus Madinabeitia abadeari agurra.

GELLAO
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

UDA ELKARTEAK BATZAR OROKORRA EGINGO DU
Gaur, egubakoitza, UDak batzar orokorra egingo du kultura etxeko bideo gelan, 19:30ean.

MURRUKIXOK DEIALDIA
Abuztuan federazioak itxita egongo dira, hortaz, norbaitek aldaketaren bat egin gura badu txarteletan datarren martitzenean joan beharko da Murrukixoko lokalera 19:00etatik 20:00etara.

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA ASTEA
EPEH Aretxabaletako plataformak antolatu du. Hilaren 15ean, martitzena, film emanaldia egingo dute Orly tabernan, 21:30ean.

Eguaztenean, hilaren 16an, enkartelada mugikorra egingo dute 19:00etan, eta gero, kafe tertulia udaletxe zaharrea. Landuko duten gaietako bat *Ikasketak espetxeetan* izango da.

Eguenean, hilaren 17an, Xabier Amurizak *Lazkao Txiki bat-bateko sorgina* bertso antologia eskainiko du Arlutz ostein, 19:30ean.

Eguaztenean, hilaren 18an, *Bat Gehio* taldeak kontzertua eskainiko du Ezkutu tabernan, 22:30ean.

Zapatuan, hilaren 19an, mendi ibilaldia egingo dute Kurtzebarrira. Eguerdian herri bazkaria egingo dute Mitarte plazan.

LORAMENDIREN AGENDA

MALABARISMO IKASTAROA
Loramendi EEk malabarismo ikastaroa antolatu du uztailan. Eskolak eguenean eta asteloheneretan izango dira -bost guztira-, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe zaharrea. Ikasle eta langabeek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta langileek, berriz, 18 euro. Atzo hasi zen ikastaroa; hortaz, parte hartu gura duena lehenbailehen joan dadila Loramendira.

ORAINDELA 106 URTE ARETXABALETAN

Cristobal Altube, 'Txindurri' jaio zen 1897an

1897ko uztailaren 10ean jaio zen, Aretxabaletan, Cristobal Altube abeslari handia. Artzain lanetan ibili zen mutikotan, eta 1921ean kantu ikasketak hasi zituen. Mal-tako Errege Teatroan eman zuen lehen kontzertua, eta gero, Erroma, New York, Paris eta beste hainbat lekutan ere izan zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Mazpillunia"

Mailatua, maspildura.
—Ezkerreko aldian dauka mazpillunia kotxiak.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Oporretarako liburuak

10 URTEK AURRERA
- 'Corazón de pararrayos' / A. Sotorra
- 'Titeuf' / Zep

GAZTEAK
- 'Atrapadas en casa venganza' / B. Ashley
- 'Relatos escalofriantes' / R. Dahl
- 'Garra de la guerra' / G. Fuertes
- 'El jinete del dragón' / C. Funke
- 'Gabon panpinatxo' / H. Hassenmuller
- 'Jokoa.com' / G. Lluch
- 'Xivaren malkoak' / C. Mallorquí
- 'Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean' / H. Mankell
- 'Kandinskyren tradizioa' / R. Saizarbitoria
- 'Frin' / L.M. Pescetti
- 'Malkamai' / M. Pressler
- 'Kea ur gainean' / I. Zaldúa

HELDUAK
- 'El libro de las ilusiones' / P. Auster
- 'Van't Hoffen ilea' / U. Elorriaga
- 'Eulien bazka' / H. Etxeberria

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Gabriel
6an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, amonaren partetik.



ARETXABALETA
Arkaitz Berasaluze
11n. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Glori Lasagabaster
11an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Itxaro Zubillaga
12an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Endika Azkargorta
12an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Andoni Pavo
13an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Gorka Pz. de Labeaga
14an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.

BABESLEA



Errebelatu guztiak 24 ordutan

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67


Banatzaileak

Egubakoitz arratsaldeetan GOIENKARIA banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ATREBENTZIAEZPADA/ San Ferminetara fateko ohiturarik badauketzu? Aurten fango zara?



JOSE GARCÍA
Langillie



LORE SALABERRIA
Iksalíe




JOANA VIAMONTE
Langillie



XABIER PAGOAGA
Langillie



IZAR ENCINA
Iksalíe



XABIER ERAÑA
Iksalíe

Lehenago, solterotan, faten nitzen, baiñe oin, lana eta familixie diela-eta, ez. Jai polittekin izeten die San Ferminak. Faten gitzenien goix eta gaba ibiltzen gitzen parrandan.

Bai. Lehenengo aldixa da San Ferminetara fango nazela. Egixe esan, horreik jaiok ez die neure gustokuenak, baiñe aurten kua-drillkuek animau egin die eta ni neu be fango naz.

Bai, zerbait asmauko dogu fateko. Beste urte batzutan be fan izen naz eta edarto pasau izen dot. Arratsalderako fan, eta gero, gabak goixakin bat egin arte ibiltzen gare parrandan.

Bai, horixe! Aurten be lagunekin fango naz San Ferminetara. Uste dot azken hamar urte honeitan ez dotela hutsik egin. Jai polittekin die San Ferminak, benetan.

Ez, ez naz sekula San Ferminetan egon eta aurten be ez dauket fateko asmorik. Beste jai batzutura, adibidez Zarautzekotara, fan izen naz, baiñe San Ferminetan ondiokan ez naz egon.

Bai. Oin arte gurasuekin fan izen naz urtero-urtero, eta aurten leleno aldiz lagunekin disfrutauko dittut San Fermin jaiok. Aurten, gainera, gabaz bizi izango dittut jaiok.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ERREKA ZIKIN-ZIKIN Guk gure ibaiak eta errekek garbi eduki ezean, sobra egongo dira mundu guztiko kolektore eta araztegi guztiak. Kolektore lanak egin ostean, ameslariei berriz ere berpiztu zitzaigun inoiz gure erreketan arrainak ikusteko esperantza. Holako argazkiak egiten jarraitzen dugun bitartean, baiña, nekez ikusiko ditugu berriz ere gure ibai eta errekek bizirik. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

EPEH Astea antolatu dute

EPEH Aretxabale-tako plataformak antolatu du EPEH Astea. Hainbat ekintza egongo dira.

ASTEAN BEHIN /05

Iñaki Sagasta musikaria

Foru Aldundiak antolatutako maketa lehiaketara aurkeztu da Iñaki Sagasta musikaria.

KIROLAK /06

Antxon Anduaga txirrindularia

Antxon Anduaga, 15 urteko mutil aretxabaletarra, denboraldi bikaina egiten dabil aurten.

ASTEKODATUA

4

ESALDI SARITU DITUZTE JAIETAKO LEHIAKETAN

Jai batzordeak eta Prebentzio Sailak lau esaldi saritu dituzte Andramaixetako Esaldi Lehiaketan. Horietako esaldi bat egitarauan azalduko da. Gainerakoekin pegatinak egingo dituzte.


BESTEKEESANA

“Guk ez daukagu borondatezko lankide askorik, baina ditugunak nahiko bereziak dira, ez dira lankide arruntak.

Momentu honetan borondatezko lankide bi daukagu Mozambike iparraldeko leku behartsu baten. Bata Beñat Artzadun errenteriarra da eta bestea, Eneritz Pagaldai aretxabaletarra. Hirugarren bat, berriz, Ibon Antero, Ekuadorren dago, Amazonasen. Ekuadorren Euskal Herria bezain handia den lurralde baten gabilta lanean. Han ez dago ezer ere, izugarritzko beharra dago. Ibonek eta han lagun dituen taldekoek garapen orokorra egiten dabilta. Medikuntza, hezkuntza, azpiegiturak... Alor guztietan dabilta lanean.

JOSE MARI SARASUA
Arrasate Irratia/03-07-07

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Derrigorrezko hausnarketa

Joan den maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren sortu diren instituzioen egoera (Aretxabaleko Udalarena barne) zaila dela gauza nabarmena da. Garbi dago egoera honek ez duela zerikusirik orain dela lau urte aurreko hausnarketa sakon bat eskatuko nieke alde guztiei. Izan ere, ez dut uste egoera onena denik elkarrizketa prozesu bat eramateko. Alde batekoak minduta eta haserre. Eta beste batzuk aurreko barrezka (oso barregarriak ei gara bigarren mailako herritalegeintzaldiaren hasieran bizi izandakoak.

Hala ere, orduko helburuak (gatazkaren gainditzea, Euskal Herriaren eraikuntza, askatasuna, bakea...) gaur ere baliozko beharko lukete izan alderdi abertzaleendako (alderdi espainolistendako kontrakoak baliodun izaten jarraitzen duten bezala). Beraz, ez da makala aurrean dagoen lana, beharrezkoak diren elkarlana eta guztion parte-hartzea ahalbidetu gura badugu.

Baina, egoera lehenbailehen bideratzea komeni bada ere, lasaitasun apur bat ere eskatuko nuke. Inongo erabakirik hartu aurretik,

hausnarketa sakon bat eskatuko nieke alde guztiei. Izan ere, ez dut uste egoera onena denik elkarrizketa prozesu bat eramateko. Alde batekoak minduta eta haserre. Eta beste batzuk aurreko barrezka (oso barregarriak ei gara bigarren mailako herritalegeintzaldiaren hasieran bizi izandakoak.

Etentxo bat egin eta hausnarketa sakona egin dezagun, ba, etorkizunari begira batez ere. Ez da, gainera, sasoi txarra etenaldi horretarako: Sanferminak dira, uda betean gaude, laster oporrak...”

Sanferminak dira, uda betean gaude, laster oporrak izango ditugu... eta hauek bukatu aurretik Andramaixak. Astirik badago, beraz, eta zer egin ere bai.

Hortaz, badakizue, ekaineko azterketa gainditu ez dugunez, oporraldian lan egitea dagokigu.

Ea irailan hobeto egiten dugun, eta gauzak garbiago ikusten hasten garen. Herriaren mesederako. Guztion mesederako.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA

Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA

Mirari Altube

Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA

Goio Arana

PUBLIZITATEA

Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA

SS-378-94

ISSN

1134-2609

TIRADA

3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaleko Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



M. J. Aretxaga

Langilliek eta presuek

Orporrak gaiñien dittugu, baiñe gehixenok ondion lan apur bat egin biher dogu. Mikel Aranburu, GOITBn jairik jai ibiltten dan oñatiarra, esate baterako, gure herrixen dau lanien, banku batiñ.

San Ferminetara joango dienak be asko izengo die, duda barik. Ondo pasau danok eta kontuz ibilli. Nik, aurten, ezingo dot Iruñera joan, baiñe herrixen be badittugu beste ospakizun batzuk. Datorren astera-ko, EPEH astie antolatu daue. Herritarrok, kolore batekuek izen edo bestekuek, parte hartu biherko geukela uste dot. Arrazoie? Batetik euskal presuen benetako egoerien berri euki deigun eta bestetik, bidezko eskaerie besteik ez dalako. Presuek, gaiñera, ez die iñonak.

EUSKAL PRESOKAK/ Urtero antolatzen dituzte euskal presoen aldeko ekitaldiak uztailean

Euskal Presoak Euskal Herrira Astea antolatu du EPEH plataformak

MIRARI ALTUBE

Orain dela lau urte sortu zuten Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataforma. Orduetik hona geratu barik ibili da lanean, eta uztailean urtero egin ohi du ekintzaren bat edo beste. Hala, aurten Euskal Presoak Euskal Herrira Astea antolatu du plataformak.

Martitzenean hasi eta zapatuta bitartean euskal presoen aldeko astea egiten dabilta herrian, EPEH Aretxabaletako plataformak antolatuta.

HELBURUA

Aretxabaletako plataforma ETAK su-etena egin zuenean sortu zuten, 1999ko apiril inguruan. Helburua herritarrak sentsibilizatzea eta atxikimendua lortzea izan zen, euskal presoen egoeraren berri emanez. Eta presoen egoera salatu eta lehenbailehen aldatzeko ere egin gura zuten lan. Herriko 33 taldek eman zioten babesa eta laguntza, baita talde politikoek ere.

Lau urte hauetan gorabeherak izan ditu plataformak, egoera politikoak bezalaxe, baina ekintza ugari egin ditu: mendi irteerak, kalejirak jaietan, kale agerraldiak... Herritarrak mugiarazi gura zituen plataformak, eta hori lortu dutela ezin ukatu.

AURTEN, ASTE OSOKO EKITALDIAK

Egoera politikoa guztiz nahasirik dago, eta euskal presoen egoerak hobera egin beharrean okerrera



luz Kurtzebarrira egin zuten mendi irteera, eta 60 bat lagun batu ziren.

egin du. Herritarrak horretaz jabe daitezten, aurten aste osorako antolatu dituzte ekintzak.

Martitzenean, hilak 15, hasi eta zapatuta bitartean hainbat eratako ekitaldiak izango ditugu: film emanaldia, presoen ikasketen gaineko kafe tertulia, bertso antologia Xabier Amuriza bertsolariaren eskutik, eta Julen Co-

bos aretxabaletarrak abesten duen Bat Gehio taldearen kontzertua. Egun garrantzitsuena zapatua izango da: lehenengo, Kurtzebarrira mendi irteera egingo dute, iaz moduan, eta eguerdian herri bazkaria egingo dute. Mitarte plazan izango da, eta txartelak herriko tabernetan erosi behar dira.

LABUR

Larrinoarrek San Kristobal eguna ospatuko dute

Atzo, eguna, izan zen San Kristobal, eta larrinoarrek jai itxura eman gura izan zioten egunari. Lehenengo, meza izan zuten, eta gero, luntxa. Bihar, ostera, afaria izango dute auzoko elkarteetan. Herriko gainerako elkarteetako ordezkariak ere gonbidatu dituzte.

Kattalin Antxiak eta leup! taldeak jaso dituzte sariak

Andramaixetako kartel iragarle eta esaldi lehiaketek badituzte irabazleak: Kattalin Antxia gazteak Kartel Iragarlearen saria eskuratu du eta Esaldi Lehiaketa, ostera, leup! taldeak irabazi du. Egitarauan honako esaldi hau agertuko da: *Izan zaitxez argixe, gauzak beti neurrixen!*

Gurutze Muxikak Murruxoren lehiaketa irabazi du

Kurtzebarriren 75. urteurrena ospatuko du Murruxo Mendizale Taldeak irailean. Hori dela eta, Kartel Lehiaketa antolatu zuen orain dela hilabete bi, eta dagoeneko badago irabazlea: Gurutze Muxika margolaria. Sei kartel aurkeztu zituzten, eta epaimahaiak Gurutzerena hautatu zuen.

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26


MAITE
ileapaindegia

Sarasate • 943 79 59 05
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatua
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ELKARRIZKETA

IÑAKI SAGASTA/MUSIKARIA

“Baxua eta bateria jotzen dituztenak aurkitu eta taldea osatu gurako nuke”

MIRARI ALTUBE

Foru Aldundiak antolatutako maketa lehiaketara aurkeztu da Iñaki Sagasta. Hala ere, damututa dago aurkezteagatik, baina, era berean, badaki bere burua eza-gutzera eman behar duela musikari aurrera egin gura badu.

Noiztik zabilta musikan?

Aspalditik. Betidanik idatzi izan ditut abestiak, eta musika ere nik neuk konposatzen dut. Orain arte, ostera, ez dut ezer egin eza-gutzera emateko.


Foru Aldundiko Gaztemaniak lehiaketan hartu duzu parte...

Bai, neure burua eza-gutzera emateko eta promozionatzeko bidea izan zitekeela pentsatu nuen. Hala ere, damututa nago, bidali nuen abestia oso baliabide gutxi-rekin grabatuta zegoen-eta.

Bakarlaria zara?

Bai eta ez. Baditut bakarrik abes ditzakedan abesti akustiko batzuk, baina taldea izan gurako nuke. Iragarkiak jarri ditut egunkarietan musikariak topatzeko, baina ez da samurra. Nire helburua baxu jotzailea aurkitzea da. Batería jotzen duen ezagun bat dut, eta horrela, hiruron artean zerbait egiten hasiko ginatke.

Zein hizkuntza erabiltzen duzu abestietan?



AL

Ez dut hizkuntza bakarria erabiltzen, berbak burura datozkidan moduan idazten ditut, euskaraz bada euskaraz, eta gaztelaniaz bada gaztelaniaz. Ingelesez ere idatzi izan ditut.

Londresen denboraldi bat egin zenuen. Hango musikak izan du eraginik zuzan?

Ez. Lehen esandako moduan, nik aspalditik idazten dut, eta Londresera joan nintzenerako neure estilo propioa neukan. Egia da, hala ere, aztarnaren bat edo beste utziko zidala Londresen bizi izandakoak.

Zein estilotan kokatuko zenuke egiten duzun musika?

Esan dudan moduan, abestiak idazterakoan ez dut hizkuntza bakarria erabiltzen, eta estiloari dagokionez ere ezin dut neure burua bakar baten barruan sartu. Rock-and-rollaren inguruko musika egiten dudala esango nuke, baina baditut punk eta blues estilora gehiago hurbiltzen diren abestiak ere. Entzun ere denetik entzuten dut: Rolling Stones, Beatles, punk taldeak... Hor-taz, denek izango dute eragina niregan.

Inaelektrik izena jarri diozu zeure buruari. Zergatik?

Neure izenaren inisialak eta musika elektrikoa lotu gura izan nituen izena asmatu nuenean.

Etorkizunari begira zein proiektu daukazu esku artean?

Baxu jotzailea aurkituz gero, bateriarekin batera hirukotea osatu eta abestien entseguekin hasiko ginatke. Behar den moduko maketa bat grabatu gurako nuke, horretarako baliabide egokiak erabilita, eta horren ostean, promozionatzen hasiko ginatke: zuzenean jotzen... Eta talderik ezin dudala osatu ikusiz gero, bakarrik jotzen hasiko naiz. Gogorragoa da, baina musikaren esparruan tartetxo bat egiteko zerbait egin beharko dut.

TXUTXUMUTXUA



Txikienek San Fermin jaiak ospatu dituzte

San Fermin jaiak ez dituzte Iruñean bakarrik ospatzen; ez, horixe! Astelehenean zuri-gorri jantzi ziren herriko ume eta gaztetxo gehientsuenak, baita txikiak ere. Udaleku Irekietan dabilzanek ederto pasatu zuten zezena aitzakia hartuta, baina Pausoka Haur Eskolakoak ere ez ziren atzean geratu; izan ere, aste osoan egin dute euren entzierro berezia; batzuk urduri, beste batzuk beldurtuta eta gehienak pozik ibili dira zapia lepoan eta egunkaria eskuan hartuta zezenaren aurrean. /M.A.

LABUR

Astelehenean egingo du udalbatza berriak agintaldiko lehenengo osoko bilkura

Astelehenean, uztailearen 14an, egingo du udalbatza berriak agintaldiko lehenengo osoko bilkura. Udalbatzak hilabete izan du Gobernu batzordea osatzeko, eta astelehenean emango dute horren berri. Udaleko batzorde bakoitzaren ardura zein zinegotzik hartu duen ere esango dute, eta erakundetara, Mankomunitatera, Ur kontsorziora..., joango diren ordezkariak izendatuko dituzte.

AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Jou Díaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- ✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

ANTXON ANDUAGA/TXIRRINDULARIA

"Lauak baino gurago ditut gorabehera handiko lasterketak"

AMAGOIA LASAGABASTER

Antxon Anduagak laster amaituko du txirrindularitza denboraldia. Hain zuzen ere, aurten bigarren urtea du bizikleta gainean lehiatzen. Gainera, taldeko arduradunen esanetan, ez du batere gaizki egiten.

Zelan doa aurtengo denboraldia?


Ondo. Aurten lehenengo mailako kadeteekin nabil eta orain arteko lasterketetan lan ona egin dut. Denera hamar lasterketa egin ditut, eta bitan izan ezik, gainerako guztietan heldu naiz helmugara.

Zeintzuk izan dira egin dituzun lasterketa onenak?

Azpeitikoan eta Lizarrakoan hirugarren gelditu nintzen. Tolosakoan, bestalde, bigarren. Uste dut horiek izan direla egin dituzdan proba onenak.

Joan den urtetik hona sumatu duzu hobekuntzarik?

Bai. Iaz marka onenak laugarren eta bosgarren postuan sartu nintzenean egin nituen. Hala ere, ez dago alderatzerik. Izan ere, iaz ibilbide itxietan jokatz



AMAGOIA LASAGABASTER

*"Iaz ibilbide itxietan jokatz
nituen probak, eta
aurten errepidean
nabil"*

nituen proba horiek, eta aurten errepidean nabil.

Zuk zelan ikusten duzu zeure burua bizikleta gainean?

Indartsu nabil; hortaz, nahiko ondo ikusten dut. Gainera, hiru lasterketa besterik ez zait falta denboraldia amaitzeko.

Hurrengo lasterketa non izango duzu?

Urnietan, bihar, zapatua. Iku-si egin behar zer-nolako ibilbidea den.

Gorabehera handiko ibilbideetan ala errepide lauetan, non ibiltzen zara ondoen?

Bietan antzera, baina gurago ditut gorabehera handiko lasterketak.

Zer esaten dizute taldeko entrenatzaileek?

Nabilen moduan segitzeko.

Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da?

Ni nabilen mailan, oraindik ez.

Zein entrenamendu egiten duzu?

Astean hirutan ibiltzen naiz bizikletan, eta irteera bakoitzean 50 kilometro inguru egiten ditut.

Frantziako Tourra jarraitzen duzu? Faboritorik?

Gustatzen zait, baina ez dut etapa bakar bat ere ikusteko aukera izan. Nire gustuko txirrindularia Euskaltel-eko Iban Mayo da.

FOTOKIROLA




Realekoak pozik itzuli ziren Madrildik

Ez zuten Canal + kateak antolatutako futbol torneoa irabazi, baina, hala ere, Beñat Etxabe eta Realeko gainerako taldeak pozik itzuli ziren Madrildik. Real Madril, Athletico eta Bartzelonaren aurretik gelditu ziren, eta hori zelanbaiteko garaipena izan zen euren dako. Final-laurdenetara iritsi ziren, baina Malagakoek ez zieten utzi handik aurrera egiten. /A.L.

XAKEA

Arlutz Xake Taldea jaun eta jabe izan zen Elorrioko Xake Bizkorreko Txapelketan

Joan den zapatuan, hilak 5, Arlutz Xake Taldeak Elorrion jokatu zen Xake Bizkorreko Txapelketan hartu zuen parte. Taldekako norgehiagoka izan zen, eta Arlutzek inongo arazo barik irabazi zuen. Joseba Altube, Esteban Romero, Aitor Alcaide eta Fran eta Andoni Migel izan ziren txapelketan, eta guztiek irabazi zituzten euren partidak. Arlutz lehenengo gelditu zen, eta, gainera, bigarren sailkatuari zortzi puntu atera zizkion. Horrenbestez, aste bi barru Gasteizen jokatu den norgehiagokan parte hartzeko gertu daude aretxabaletarrak.



SPORTLAND

KIROLA ZEURE ESKURA

Hartu arnasa
uztillak etik aurrera
BETTER TAPENAK

SPORTLAND ARRASATE

Garibai Etorbidea, 2-6 - ARRASATE


ERRETRATUZAHARRA

Herritarrak Tourmalet gailurrean

Frantziako Tourra gori-gorian dago, eta euskaldun ugari hurreratuko dira Pirinioetara txirrindulariak gertutik ikusi eta animatzera. Tourmalet gailurrak, gainera, ospe handia dauka, eta txirrindulari ugari joaten da, urtean barrena, esaten duten bezain gogorra den frogatzera.

Horrela, bada, erretratuan agertzen den Aretxabaletako Zikloturista Taldea 1992ko San Juanetan joan zen. Ekaina izan arren, elurra zegoen bide ertzean, eta hotz pasatu zuten. Tourmalet igotzen hasi aurretik kilometro ugari egin zituzten, eta batzuek nekatuta ekin zioten portuari; hala ere, guztiak heldu ziren. Hori da hori sasoi, ibili egin behar da 140 kilometro, eta tartean Tourmalet gailurrera iritsi.

“Eskoriatzako Luis Miguel Baratasek esan eta esan egiten zigun Juan Aldaberi eta niri txirrindulari bat ona ezin zitekeela izan Tourmalet igo barik. Juan Aldabe oso txirrindulari ona izandakoa da, Asturiasko Itzulian



garaile ibilitakoa, eta Baratasek ederto jotzen zigun adarra”, dio Luis Mari Otxoak. “Gauzak horrela, 1992an animatu egin ginen, baita joan ere. Gogorra da, baina hori pentsatuta joan ginenez ez zitzaigun hain latza egin. Gogoan dut, gainera, hotelean Juane-kin egin nuela lo; bueno lo edo... Izan

ere, txirrindulari onek gustura egin behar dute lo, eta haren lokarrazekin nik ezin izan nuen begirik itxi”. Tourmalet igo ostean, atsedean hartzeko Lourdesko santutegira joan zen bisitan taldea.

Ezkerretik eskumara honakoak daude: Luis Mari Otxoa, Jesus Mari

Rosado Txispas, Bote, Jose Luis Eraña, Juan Aldabe, Nazario, Cándido Pérez, Curto, Jesus Mari Herrasti, Dioni, Luis Miguel Baratas, Vilches eta mondragoetar bat.

Argazkia: Luis Mari Otxoa



Gertu zaude **GEMES** berria ikusteko?

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko uztailearen 11 / 132. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: S5200/99

Eskoriatzako udalbatza berriak gaur egin du agintaldiko lehenengo bilkura

AINTZANE GARDOKI

Ekainaren 14an udalbatza berria osatu zenetik batzar eta lantalde ugari lanean ibili bada ere, udalbatza berriak gaur, egubakoitza, egin du agintaldi berriko lehen osoko bilkura. Zinegotzi gehienek hartu dute parte bilkuran. Kontzejupe ere bertan izan da.

Gaur, egubakoitza, egin du udalbatza berriak, ezohikoa bada ere, agintaldiko lehenengo bilkura. Hainbat gai izan dituzte aztergai: batetik, osoko bilkuren maiztasuna eta bilkurak zein egunetan egin zehaztu dituzte. Bestetik, batzorde informatzaileak sortu, eratu eta batzordeok zenbatean behin batuko diren zehaztu dute zinegotziek. "Ekainaren 14a ezkerro, hau da, udalbatza osatu genuenetik, udaletxeko eguneroko lanek denbora luzea kendu badidate ere, beste alderdiekin batzar asko eta asko egin ditugu. Hortaz, gai gehienak lotuta ekarri ditugu aldez aurretik", esan digu alkate Juan Karlos Bengoak.

Jorratu dituzten beste gai batzuen artean, udal taldeetako bozeramaileak izendatu dituzte.



Plataformako kideek, ekainaren 14an izan zuten moduan, dagokien lekua izan gura dute bilkuren gelako mahaian.

Kontzejupe plataformarekin hainbat batzar egin ditu EA-EAJ koalizioak: "Plataformako kideek gure bi zinegotzik dimiti dezaten eskatzen digute. Ez dute dimittituko,

baina gertu gaude beste bide batzuk jorratu eta Kontzejuperi dagokien lekua emateko. Horretan ari gara, eta bidea bilatzen jarraituko dugu", esan digu Bengoak.

Kontzejupeko kideak bilkuran egon dira, eta euren gogoak aurrerapausoak ematea eta udalbatza berrian lekua izatea dela esan digu Dorleta Kortazarrek.

Osoko bilkuren maiztasuna eta bilkurak zein egunetan egin zehaztu dituzte

"Ekainaren 14a ezkerro udaletxeko eguneroko lanek denbora luzea kendu didate"

"Kontzejupeko kideek gure bi zinegotzik dimiti dezaten eskatzen digute"



Udalekuetan jolas giroa eta umore ona nagusi

Hasi dira, bai! Udalekuak hemen daude! Hilaren 7tik 24ra bitartean eguna zertan eman badute herriko umeek. Goizeko hamarretan elkartzen dira 145 ume eta 18 begirale Gorosarri plazan. Lehenengo egunean, umeek eta begiraleek elkar ezagutu eta taldeak osatu zituzten. San Fermin eguna Iruñean bakarrik ez, Eskoriatzako kaleetan ere zezen eta korrikalari ugari ibili dira eta asteon. Gaur, egubakoitza, berriz, mendi irteeratxo egin dute. Datorren astean ekitaldi gehiago dituzte egiteko.

LABUR

Rosa Lasagabaster eskoriatzarrak oso lasterketa ona

Rosa Lasagabaster korrikalari eskoriatzarrak lasterketa polita egin zuen Zegama-Aizkorri II. mendi maratoian. Iaz lasterketa irabazi zuen. Aurten, berriz, laugarren izan zen arren oso pozik dago: "Zoragarria izan zen. Ez nuen inondik inora sei ordu azpitik egitea espero, eta iaz baino 20 minutu gutxiago behar izan nituen lasterketa egiteko: 5:45. Izugarriko maila egon da aurten", esan digu Rosak. Mulacengo lasterketa du hurrengo erronka Rosak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate) ..	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) ..	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) ..	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) ..	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) ..	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) ..	945 23 20 30
PESA (Arrasate) ..	902 10 12 10
Larrialdia (Arrasate) ..	943 77 10 43
SOS Deiak ..	112

OHARRAK

ZINEMA EMANALDIK PLAZAN

Uztailaren 7an hasi eta 30era bitartean, zinema emanaldiak egingo dituzte Herriko Plazan. Kultura Sailak antolatu duen kale zinemaldian 11 film ikusteko aukera izango dute herritarrek. Emanaldiak astelehenetan, eguaztentean eta egubakoitzetan izango dira, 22:15ean. Batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz.

Gaur, egubakoitza, *Límite vertical* emango dute, gaztelaniaz; hilaren 14an, *Otsoen ituna*, euskaraz; hilaren 16an, *Mejor imposible*, gaztelaniaz; eta 18an, *Amelie*, gaztelaniaz.

AXTROKIRENAGENDA

KOADRILEN ARTEKO LEHIAKETA

Bihar, zapatua, ibarreko Koadrilen Arteko Lehiaketa jokatu da Oñatin. Lehiaketa Debagunek antolatu du. Axtroki elkarteak ere lehiaketako gertu egongo da Oñatin, 11:00etan.

XABIER GÓMEZ/PARROKOA

“Irailtik aurrera Salamancan beste esperientzia bat bizi izaten saiatuko naiz”

AMAGOIA LASAGABASTER

Azken sei urteotan herriko parroko izan eta gero, Xabier Gómezek bizimodu berria hasiko du irailean, Salamancan. Herritarrek penaz hartu dute erabakia, eta badakite zaila izango dela parroko gaztearen hutsunea betetzea.

Zeintzuk dira irailerako zure asmoak?

Nire bizitzan beste etapa bat hasi gura dut. Bederatzi urte daromatzen apaizgoan eta azken hiru urteotan gauza eta ideia askori bueltak ematen ibili naiz. Hala, nire bokazioa beste modu baten bizi izateko erabakia hartu dut. Horregatik, irailtik aurrera beste esperientzia bat bizi izaten saiatuko naiz Salamancako etxe erlijioso baten. Horrez gain, berriro ere ikasten hasiko naiz lizentziatura bat egiteko.

Ondo pentsatutako erabakia hartu duzu?

Bai, eta ez da samurra izan. Lotura estua daukat Eskoriatzarekin, baita ibar osoarekin ere; lagun ugari ditut hemen.



Domingotarren ordenan sartuko zara. Zergatik?

Ordina zabala delako. Horrez gainera, familia horren barruan garrantzi handia ematen zaio norberaren askatasunari, eta, zelanbait, otoitzak eta ekintzak uztartzen ditu. Ikasketak eginez egiaren bila dabilta domingotarrak, eta, horrez gainera, oso konprometitu daude behartsu eta marjinateuekin.

Zelan hartu dute herritarrek zure erabakia?

Uste dut jendeak ez zuela espero nik hemendik alde egitea, eta penaz hartu du. Lagunei, etxekoei eta gertukoei ere tristura eragin

“*Lotura estua daukat Eskoriatzarekin, baita ibar osoarekin ere*”

“*Jendeak ez zuen espero nik hemendik alde egitea, eta penaz hartu du nire erabakia*”

diet, baina, aldi berean, horiek errespetuz egin diote aurre nire erabakiari.

Zer esan gura diezu eskoriatzarrei?

Eskerrak eman gura dizkiet guztiei. Baina oraindik ez dut agurrik esan gura. Egongo da horretarako denbora.

TXUTXUMUTXUA



Kontzejupeko I. Pilota Txapelketa

Herri Plataformak antolatutako Kontzejupeko I. Pilota Txapelketan sei bikotek hartu zuten parte. San Pedro bezperan jokatu zuten txapelketa, eta maila ona erakutsi zuten pilotariak. Akizu eta Iregi izan ziren nagusi: “Presaka eta korrika zerbait egin guran antolatu genuen txapelketa. Kontzejupea puntu garrantzitsua da herrian; horregatik, eta izan duen erantzuna ikusita, datorren urtean ere prestatuko dugu txapelketa”, esan digute.

LABUR

Gazteendako euskara ikastaroak

Herriko 18 eta 25 urte arteko gazteendako euskara ikastaroak emango dituzte datorren ikasturtean euskaltegian. Herriko 242 gazteri bidali dizkiete ikastaroan parte hartzeko gonbidapena. Ikasketak guztiak euskaraz egin arren, euskaraz berba egin eta idazteko erraztasuna galdu dutenendako antolatu dute ikastaroa. Hain zuzen, irailtik ekainera bitartean erritmo bizi izango duen ikastaroak lehenago ikasitakoa berreskuratzea du helburu.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 7150 61

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Domekan herritar asko elkartu ziren Goierrin, San Martin eguna ospatzeko

AINTZANE GARDOKI

Ohiturari eutsiz, uztaileko lehenengo domekan San Martin eguna ospatu zuten gatzagarrek. Lehenengo, herritarrek meza entzun zuten Martin deunari eskainitako basilizan. Eta luntx ederraz disfrutatu eta gero, laukora egin zuten herritar askok.

Auzotarrek zehatz-mehatz ez dakite, baina urte asko dira uztaileko lehenengo domekan San Martin eguna ospatzen dutela: "Ni San Martin auzora bizi izatera etorri nintzenean, On Ramon abadeak esan zidan ez zuela meza gehiagorik esango San Martinen. Arren eskatu nion behin eta berriro, eta geroztik ez dugu urte bakar baten ere hutsik egin", esan digu orain Donostian bizi arren urte askoan San Martinen bizi izan zen Mari Carmen Arizek. "Nik fede handia diot San Martini. Baseliza hau oso berezia izan da, eta izango da, niretako. Sarritan pentsatzen nuen loteria tokatuz gero basilizaren teilatua konponduko nuela. Horrela adierazi nion Donostiako nire lagun bati, Isabel Irazustari. Hark egun baten



Meza entzun ondoren, Udalak prestatutako luntxaz gozatu zuten; eta gero, herritar askok laukora edo dokean jokatu zuten.

esan zidan berak jarriko zuela teilatua konpontzeko behar zen dirua. Eta hari esker teilatua konpondu eta auzotarrek, auzo-lanean, baseliza txukundu zuten",

azaldu zion Arizek. "Lehen, elizbira egiten zen. Garai baten, gainera, gaurko egunez, Gasteizetik trena etortzen ei zen San Martiner", gaineratu du Mari Car-

men Arizek.

Mari Carmenek berak San Martin egunez urtero ekartzen ditu zilarrezko zutargiak: "Eta ni ez naizenean, auzokide bati esan

diot bere kargu utziko ditudala zutargiak", argitu zigun Mari Carmenek.

Egun handia izan da beti auzotarrendako San Martin domeka: "Gaur egun ere gonbidatu asko izaten jarraitzen dute hemengo baserrietan", esan zigun San Martingo auzokide batek. Beste auzokide batzuk, berriz, azkeneko 13 urteotan etxe baten elkartzan dira elkarrekin bazkaltzeko: "San Martin beheko hiru etxeetako bizilagunak eta San Martinen lehenago bizi izandako lagunak elkartzan gara geurean bazkaltzeko. Bazkaltzeko eta, egia esatearren, baita afaltzeko ere, egun osoa pasatzen dugu-eta elkarrekin. Aurten, esate baterako, hamalau lagun elkartu gara. Baina beste urteren baten 20tik gora ere elkartu gara", esan zigun Julio Garciak. Gainera, ez zuten ez nolana hiko bazkaria izan: entsalada, galeperrak, orein azpizuna, karramarroak eta, amaitzeko, bildots-txuletak.

Jende ugari batu zen domekan San Martinen. Eguraldia lagun, eguerdi politaz disfrutatu zuten batutakoek. Horren harira, *dokean* ala *laukora* Goierri irabazi zion Beterriri.



Hasi dira udalekuak, umeen gozamenerako

San Ferminetako entzierroaz ekin zioten Gatzagako udalekuei. Elexaldeko kortatik irten ziren bi zezenek gogotik korrika eginarazi zieten herriko txikienei. Hasieran urduritasuna nabaria izan zen, baina txikienek laster hartu zieten konfiantza zezen beltzei. Zezenez gainera, igerilekura irteera, eskulan lantegiak, antzerkia eta Piraten Eguna egin dituzte, besteak beste, astean barrena. Eta datorren astean ere makinatxo bat ezusteko izango dituzte.

LABUR

Andra Mari Jaiak prestatzen hasi dira herritarrak

Irailaren lehenengo aste bukeran Andramaixa jaiak ospatuko direla eta, kultura zinegotzi Jon Sasian dagoeneko hasi da prestateta lanak egiten: "Udalbatza osatzen dugunok berriak gara honetan. Denbora luzerik ere ez dugu, gainera. Aurreko urteotako egitaraua hartu beharko dugu oinarri. Baina gatzagarrek merezi duten jaiak izan dezaten ahalginduko gara". Jaiak antolatzeke, eguaztenean herri batzarra egin zuten.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540



bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

BEHERAPENAK!



ALBOKA gazte moda / Durana 36

CAUCA KAMISETA ~~19,95~~ 13,95



PAGALDAI opariak / Durana 33

CACHAREL BIKINIA ~~72,12~~ 36,06



MARI KARMEN oinetakoak / Errekabarren 22

ESPINOSA SANDALIAK ~~28,00~~ 19,60



IRIARTE umeen moda / Durana 8

SECOPAL KAMISETA ~~16,50~~ 11,55

ARETXABALETAKO ONENAK!

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

GOYARAN ERRETEGIA



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

URBALTZ
TABERNA



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Araulturuzabala 25 ESKORIATZA

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

JOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08



IBARRA JATETXEA

Menua
eta
karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



Mitartegorai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

ESKORIATZA Bazkariak
eta
afariak



Tfno 714345

ERRETEGIA

Mendiola auzoa
ESKORIATZA
943 71 43 45
Astelehenerain
itxia

BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba ibilbidea 20 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95